

EUSKARA – OINARRIZKO MAILA

ERANTZUN ZUZENAK

IRAKURMENA (15 puntu)

1. ARIKETA (5 p)

0	1	2	3	4	5
E	F	C	B	D	A

2. ARIKETA (5 p)

0	6	7	8	9	10
C	D	G	F	H	E

3. ARIKETA (5 p)

0. Ardo zuria.

11. Hurren tamainako kubotan.

12. Pipitak eta zukua.

13. Erretiluan.

14. Ordubetez.

15. Epel.

ENTZUMENA (15 puntu)

1. ENTZUNGAIA (5 p)

0	1	2	3	4	5
F	A	G	C	D	B

2. ENTZUNGAIA (5 p)

0	6	7	8	9	10
B	C	A	C	C	C

3. ENTZUNGAIA (5 p)

0. Iruñeko Erraldoien Txokoan.

11. Iker Goenagarena.

12. 14 kanta.

13. Ordu erdiko tartearekin.

14. Frantziarrak eta italiarrak.

15. Mambo musika.

OINARRIZKO MAILA

ENTZUMENA

Lehen entzungaia: Euskal Herria Irratiko Asteroide saioa (moldatua) (iraupena: 2'40")

- 0) *Asteroide* saio honetan, besteak beste, honakoak aireratuko ditugu datozen 60 minutuotan. Azaroarekin batera abiatu ziren Bertizko Turismo Partzuergoak antolatutako Jardunaldi Gastronomikoak eta eskualdeko 8 gaztetxek hartzen dute parte bertan eta 25 eta 32 euro arteko menu bereziak eskaintzen dituzte. Horren inguruko berriak jasoko ditugu eta berreskuratuko ditugu gaurko honetan.
- 1) Irandik etorritako lagun bat, Iranera bidaia egin duen pertsona batekin hitz egin geuen *Pasa hitza* saioan. Oskar Brako, gure lankidea, irradi honetako komertziala; bertako kultura, bizimodu, paisaia diferenteak ikusi nahi zituzten bidaia honekin eta hori bera lortu dute. Bere hitzetan entzunen dugu.
- 2) Musika kontuak ere izanen dira gurean eta musikariak baita. Benito Lertxundik eta Unai Iturriagak euren sormen lanean hizkuntzara nola hurbiltzen diren kontatu ziguten, euskararekin duten harreman berezia. Hasteko kantu bat egiteko eskatu genien.
- 3) Adimen arazoak dituzten pertsonak ere protagonista izan dira gurean aste honetan. *ANFAS*, adimen arazoak dituzten pertsonekin lan egiten duen elkarte beteteranoa dugu eta larunbat honetan, azaroak 17an, bazkidearen eguna daukate eta horren inguruan solastu ginen Beatriz Oiartzabal, *ANFAS*eko langilearekin.
- 4) Ekologia kontuak ere, natura kontuak ere, bildu ditugu aste honetan Josu Larrinaga soziologoarekin. Joan den asteburuan gertaturiko istripu ekologikoei buruz mintzatu gara, Itsas Beltzean bost itsasontzi hondoratu zituen ekaitz batek eta San Frantziskoko kostaldeetan ere itsasontzi bat hondoratu zen eta irudi harrigarriak jaso ditugu aste honetan.
- 5) Bestelako izen propio batekin jarraituko dugu aurrera, Haritz Amezketa, *Hegoak* taldeko kidea da eta berak Galesko polizia-buruak egindako proposamenaren inguruan hitz egin zigun: droga guztiak legeztatu beharko lirakeela erran zuen polizia-buru honek. Hauxek, beraz, ordu bata bitartean entzungai izanen ditugunak, hementxe, Euskal Herria Irratian, *Asteroide* saioan, astearen errepassoa ordu batez.

Bigarren entzungaia: Hiru telefono elkarrizketa (iraupena: 2'20'')

Lehenengoa (52'')	Bigarrena (38'')	Hirugarrena (50'')
Ring, ring, ring	Ring, ring, ring	Ring, ring, ring
1-Bai? Zein da?	1-Bai? Zein da?	1-Zein da?
2-Nerea?	2-Kaixo, Joxe Arozena, faborez?	2-Bai, ni naiz.
1-Aupa, ni naiz...	1-Bai, zeinen partez?	1-Aupa! Ze? Oraindik lanean?
2-Aupa, Karmele naiz	2-Bueno, berak ez nau ezagutzen, baina deitzen nuen ordua hartzeko.	2-Bai neska! Lan pila daukat gaur! Aber, gauzatxo bat, bixi-bixi: gaur goizean ahaztu dut hor kartera, mahai gainean...
1-Aupa, Karmele, bai, Zer moduz?	1-Ordua? Nola ordua?	1-Bai, ikusi dut.
2- Bueno, ez oso ondo, egia esanda...	2-Bai, bueno, telefonoa begiratu dut listinean eta ez dakit etxera deitzen ari naizen edo kontsultara...	2-Eta badut barruan telefono bat eta behar dut. Ea emango didazun...
1-Zer duzu? Bueno, ahotsean sumatzen dizut pixkat...	1-E, ez ez ez, kontsultarik ez dago hemen, e, nahastu egin zara.	1-Bai, itxaron pixka bat, orain noa (...) Aber, hemen daukazu... autobus billete batean?
2-Bai, buruko minez eta, nabil, ez nago oso ondo....	2-Ai ama! Beste Arozenaren bat izango da orduan... Kasualidadea!	2-Bai, hori da.
1-Ai ama!	1-Bai, besteren bat izango da...	1-Aber, apuntatu: 948-217011
2-Bai, ba esan nahi nizun biharko afaria igoal beste baterako utziko dugula	2-Bai, barkatu ba.	2-Ederki! Bale, ba horixe zen. Utziko zaitut, e, lan handia daukat-eta.
1-Bueno, lasai, lasai, igual dio!	1-Lasai. Aio!	1-Bale ba...
2-Bai, ze ez dut gozatuko, ez nago oso ondo-eta.		2-Bueno aio!
1-Abisatu diozu Mikeli?		1-Aizu aizu aizu!! Ogia ekarri honakoan.
2-Bai, hitz egin dut berarekin, eta esan dit... bueno geratu gara hurrengo hilabetean egunen batean egiteko		2-Ogia?
1-Ez duzue jarri egunik oraindik?		1-Ogia, ogia.
2-Ez, egun zehatza ez baino gelditzekotan.		
1-Ederki! Pues abisatuko didazue orduan...		
2-Bai, lasai abisatuko dizugu.		
1-Bale ba.		
2-Eta barkatu		
1-Lasai lasai. Eta zaindu.		
2-Bai, ondo ibili!		
1-Bai, aio!		

Hirugarren entzungaia: Asteko agenda: Euskal Herria Irratia (iraupena: 2'50'')

Aurkezlea: Aste honek, besteak beste, uda, udaldia ekarri behar digu, udaberriaren azken eguna, Donibane suak eta beste kontu askotxo.

Hasiera eta amaiera, aste honetan amaituko dena, *Kantu eta Hitza*, musikari kantarien kontzertuen zikloa. Formato txikiko esaten zaiona datorren ostegun honetan eta Erraldoien Txokoan ariko dena Iker Goenaga; akordioalaria *Amurrua* izenarekin lan berri bat atera du. Hamalau kanta dira, berak sortuak beti ere, eta Euskal Herriko tradizioan sustraituak. Iker Goenaga musikari talde batekin etorriko da: ----- Barandiaran, Mikel Atxega eta beste, ahotsa, kitarra, trikitixa eta beste. Hau esan bezala, *Kantu eta Hitza* zikloari amaiera emanez.

Aste bururako, aldiz, eta hau Iruñeko Udalak antolaturikoa da: Kale Musikarien Nazioarteko Topaketa proposatu dute Iruñerako. 3garren urtea da eta, beraz, kalea, kalez kale ibiliko diren musikariak dira, oso molde eta musika genero desberdinak egiten dituztenak. Oker kontatu ez badugu guztira 13 talde dira, beraz, musikariak 60tik gora, eta Iruñeko Alde Zaharrea ariko direnak, gehienetan ibiliz ariko dira, edo une jakin batzuetan egonean baina kale animazioa eta kale musika eskainiz. Antolatzeko moldea da: ordu erdiro atera, beraz, batzuk 7etan, besteak 7 eta erdi, 8etan, eta ordu erdiko tartearekin ibilbidea eginez Alde Zaharrea.

Musika molde diferenteak badira, esate baterako hor Balkanetako gipsi jazza egitera etorriko da talde bat. Egia esan frantziarrak eta Italiarrak dira, baina egiten duten musika Balkanetakoa da; edota baita Magrebetik ekarritakoak, eta gero beste batzuk tangoak, edo kapeira eta batukada egiten duten taldeak ere badira; Kataluinatik etorritakoak ere Lisboa Central Café izenekoak. Gainera horiek bi musika kontzertu emanen dute, edota badira manboa egiten duten kubatarrak eta beste. Beraz, entretenimendua ez da faltako, esan bezala, Kale Musikarien Nazioarteko Topaketa bada, ostiral, larunbat eta igande arratsaldez Iruñeko Erdialde, baino, batez ere, Alde Zaharrea ibiliko dira.